

# PRIBATIZAZIOAREN AURREAN, ZAINZA SISTEMA **KOMUNITARIOA!** Zaintza lanak **aitortu** eta **banatu**

Milaka izan ginen 2023ko azaroaren 30ean Greba Feminista Orokorrean kaleetara atera ginenak aldarrikapen argi batekin: zaintza eskubide kolektiboa bermatzeko Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa garatu behar dela. Emakumeon\* esploatazioaren gain bizirauten duen zaintza sistema hau kolapsatu egin dela gero eta agerikoagoa da: gaur egungo zaintzen antolaketa soziala jasangaitza da.

Egoera horren adierazle da instituzioek, (boterean dauden alderdien aldetik) pribatizazioa sustatzearen ondorioz, negozioa egitea eta zaintza sektorearen prekarizazio basatia. Bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lan hauei dagokien balioa eman beharrean, kapitala metatzen jarraitzeko baliatzen dituzte instituzioek zein patronalek, inolako lotsarik gabe.


Greba egunean, besteak beste, instituzio guztiei denon bizitzetikiko ardura exijitu genien: mahai interinstituzional bana eskatu genien euskal gobernuei. Baina, zaintzak demokratizatuko dituen Euskal Zaintza Sistema Publiko Komunitario bat eraikitzeko adostasun sozialaren aurrean, erantzukizunari entzungor egin, eta, eredu aldatzetik urrun, horretan sakontzen jarraitzen dute.

Nafarroako Gobernuaren aldetik ez dago konpromiso politiko sendorik pribatizatutako zerbitzuak publikatzeko. Negoziazio mahaiaren eskaera egin badugu ere, INAI Berdintasunerako Nafar Institutuarengana bideratzen gaituzte, berriz ere, beraiek duten ardura beste batzuegan delegatuz. "Nafarroako Zaintzen Aldeko Itunak" sinatu arren, borondate eta baliabiderik gabe, zaintza zerbitzuen eta zaintzaileen prekarizazioa sustatzen jarraitzen dute gobernuan dauden alderdiek. Horren adibide garbia da oraindik Nafarroan ez dugula zahar egoitzetako lehenengo hitzarmena sinatzea lortu. Ozen diogu, egoera sostengaezin honen aurrean, neurri eta aurrekontu errealak behar ditugula. Mugimendu Feministak gidatutako prozesuari entzungor egiten dioten arren, jakin badakigu pilota haien teilatuan dagoela. Hartu dagokizuen ardura!

Guk, ordea, agenda sozial bateratuaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu; estrategia komunak josi eta zaintzen problematika agendaren erdigunean mantentzeko beharra daukagu. Zaintza lanak ikusarazi, dagokien balio soziala eman eta krisia azaleratzen jarraituko dugu, herriz herri, lantokiz lantoki eta kaleetan, mobilizazioen bidez. Urgentziak mahai gainean jarri eta aktibazio sozialarekin, arduradunak interpelatuz:

- 1. Zaintza sistema publiko komunitarioa garatu** behar da, zeinak bizi eta lan baldintza duinak bermatuko dituen. **Pribatizazioarekin amaitu** eta publikazio prozesuak bultzatzeko planak behar dira. Era berean, ratioak hobetzea urgentzia bat da.
- 2. Zaintza lanen kolektibizazioaren norabidean, lanaldia murriztu** eta kontziliazio eta **erantzukidetasun** neurriak behar ditugu.
- 3. Zaintzako langileen lan baldintzak duindu**, hitzarmenen negoziazioan borrokatzen ari garen norabidean: langileen erosahalmena bermatu, ratioak handitu, lizentziak edota bestelako baimenak hobetu, negoziazio kolektiboa desblokeatu...
- 4. Zor patriarkalaren aitortza** eta errekonozimendu sozial, politiko eta ekonomikoa orain.

Borroka sindikal feministaren bidez, anbizioz jarraitzen dugu hasitako bide honetan. Desaktibazio soziala helburu duten hitzarmen eta itunen aurrean, Mugimendu Feministarekin eta Denon Bizitzak Erdigunean jartzeko Herri Akordioa izenpetzen dugun eragile guztion artean aliantzak eraikitzen jarraituko dugu. Alderdi eta instituzioei dagokien ardura har dezaten eskatzen jarraituko dugu: pribatizazioaren aurrean, zaintza sistema publiko komunitarioa garatzeko. Zaintza lanak aitortu eta banatzeko.



8 de Marzo

# PRIBATIZAZIOAREN AURREAN, ZAINTZA SISTEMA **KOMUNITARIOA!**

## **Reconocimiento y reparto** de los cuidados

Fuimos miles las que salimos a las calles el 30 de noviembre de 2023 durante la Huelga Feminista general con una reivindicación clara: para garantizar el derecho colectivo al cuidado hay que desarrollar el Sistema Público Comunitario de Cuidados. El colapso del sistema de cuidados es cada vez más evidente: la actual organización social de los cuidados es insostenible, el sistema se sostiene y se perpetúa a través de la explotación de las mujeres.

La precarización de los sectores de cuidado es brutal y es consecuencia de la privatización y el negocio que se promueve por parte de las instituciones (y de los partidos que están en el poder). En vez de dar valor a estos trabajos imprescindibles para sustentar la vida, las instituciones y patronales siguen aprovechándose, sin ningún pudor, para seguir acumulando ganancias.

Durante el proceso de la Huelga Feminista General, exigimos a todas las instituciones responsabilidad por las vidas de todas/os: pedimos crear mesas interinstitucionales a los gobiernos vascos. Pero frente a los consensos sociales para construir un Sistema Público Comunitario Vasco de Cuidados que democratice los cuidados, lejos de asumir la responsabilidad y cambiar de modelo, siguen profundizando en el mismo.

Por parte del Gobierno de Nafarroa no existe un compromiso político firme para la publicación de los servicios privatizados: pese a que hayamos pedido una mesa de negociación, nos derivan a INAI, Instituto Navarro para la Igualdad, otra vez más, huyendo de las responsabilidades que tienen. Aunque las instituciones hayan firmado los "Pactos por los Cuidados de Navarra", es evidente que no hay voluntad ni recursos: los partidos en el gobierno siguen promoviendo la precarización de los servicios y las condiciones laborales de las trabajadoras de cuidados. Ejemplo de esto es que no hayamos conseguido firmar el primer convenio de las residencias de mayores en Nafarroa. La situación es insostenible y reivindicamos claramente que necesitamos medidas y presupuestos reales. Hacen oídos sordos al proceso liderado por el Movimiento Femi-

nista, pero nosotras les decimos claramente que la pelota está en su tejado. ¡Que se hagan cargo de lo que les corresponde!

Nosotras seguimos apostando por una agenda social conjunta. Tenemos la necesidad de construir estrategias comunes para mantener la problemática de los cuidados en el centro de la agenda. Visibilizaremos los trabajos de cuidados, les daremos el valor social que les corresponde y seguiremos visibilizando la crisis, a través de la movilización. Poniendo las urgencias sobre la mesa, mediante la activación social, interpelando a los responsables:

1. Hay que **desarrollar el sistema público comunitario de cuidados** que garantice unas condiciones de vida y trabajo dignas. Se necesitan planes para acabar con la privatización e impulsar los procesos de publicación. Asimismo, la mejora de ratios es una urgencia.
2. Necesitamos **reducir la jornada laboral** y plantear más medidas de conciliación y corresponsabilidad, para colectivizar los trabajos de cuidado.
3. **Dignificar las condiciones de las trabajadoras de cuidados**, tal y como estamos luchando en la negociación de los convenios: garantizar el poder adquisitivo de los trabajadores, aumentar los ratios, mejorar las licencias u otros permisos, desbloquear la negociación colectiva...
4. El reconocimiento social, político y económico de la **deuda patriarcal**.

A través de la lucha sindical feminista, seguimos con ambición este camino. Frente a los pactos que tienen como objetivo la desactivación social, seguiremos construyendo alianzas con el Movimiento Feminista y con todos los agentes que suscribimos el Acuerdo Social para poner las vidas de todas en el centro. Seguiremos reclamando a los partidos e instituciones que asuman la responsabilidad que les corresponde: frente a la privatización, desarrollar un sistema público comunitario de cuidados. Reconocer y distribuir los cuidados.

